ANA ETA BERE ANAIA

Anaren etxeko atea ireki zen. Bere gurasoak etxera iritsi ziren bere anaia berriarekin. Ana korrika joan zen ateraino bere anaia txikia ikustera.

Ikusi zuenean, harrituta geratu zen, ia bere panpinak bezain txikia zelako. Hurbildu zenean, bere anaiak begiak ireki zituen eta soinu bat egin zuen. Anak orduan esan zion bera ere pozik zegoela jada etxean zegoelako.

• IDATZ EZAZU **E** (EGIA) ETA **G** (GEZURRA)

☐ Anak ahizpa txiki bat izan zuen.

☐ Anak anaia txiki bat izan zuen.

☐ Bere anaia oso txikia zen.

☐ Hurbildu zenean, negarrez hasi zen.

☐ Hurbiltzerakoan, begiak ireki zituen.

☐ Anak esan zion pozten zela etxean zegoelako.